

Itzuli ezinaren historia

Alex Gurrutxaga

O hartuko zinen, irakurle, idazlearen niaren inguruan eraikitako testu asko agertzen ari dela azkenaldian. Ezin has gaitzek izenak ematen, baina pentsa ezazu orainsuko zenbait liburu ezaguni buruz. Hasier Larretxearen lehen narrazio luzea ere, *Larremotzetik*, autobiografiaren eta memoriaren artean mugitzen da.

Batez ere estiloak markatzen du egilearen apustu literarioa. Narrazioak ez du gertakariaren ildo sendo bat, fragmentarioa da, eta elipsiak ugariak dira. Hari narrazio bategi baino gehiago, sekuentzia kateatzeaz mintzatu behar genuke. Larretxeak bere haurtzaroko eta gaztaroko Baztango eszenak dazkarzigu, eta horiei buruzko gogoetan murgiltzen da. Bizimodu baten printzak dira: ez erretratu zehatz bat, baizik idazleak berak inguru horretan bizi izandakoen kontaketa oso pertsonala.

Tentsio bat dago kontakizunaren muinean. Alde batetik, iraganaren galera sentimendua dago, familiaren pitzatzek eragindako hutsunea –«sostengatzen ez zen iraganaren ehun familiarra»–, eta galera hori nostalgia dosi handiekin kontatzen zaigu: adibide gisa, badago *ubi sunt* moduan idatzitako ahapaldi bat –«non gelditu dira...?»–. Urruntze hori xamurtu beharrez, idazleak iraganaren berreskuratu nahi luke literaturaren eskutik: «Atzera begi-


ratzea nonbait utzitakoa berreskuratzea da». Bestetik, ordea, haurtzaroko mundu hartan pairatutakoak ere kontatzen ditu idazleak: moral kristaudun gizar-te itxiaren presioa, jendearen eragozpenak homosexualitatea onartzeko, familiako gorabeherak, e.a. Bi indar, beraz, eta tentsio honen sintesi gisa, iraganarekin adiskidetzeko beharra agertzen da. Puntu horretan nabarmena da –nabarmenegia, akaso– testuak idazlearentzat duen balio terapeutikoa: «literatura garbiketa bezala».

Estilo literarioari dagokionez, bere marka jartzen du Larretxeak, baina, poesian funtzionatu egiten dion bezala, narrazioan emaitza desorekatua da. Erritmo poetiko baten bilaketa antzematen da, bai tonuan, bai sintaxian. Hizkera metaforikoa nagusitzen da maiz, eta fragmentu zenbait prosan idatzitako poematzat har daitezke. Bere poesian bezala, oso ugariak dira kutsu aforistikoa duten esaldiak, baieztatzaile eta zu-

zenak; baten bat distiratsua da, iradokitzailea, baina oro har trankatu egiten dute narrazioak behar duen jarioa. Era berean, jario horrexen kontra egiten du lexikoan sumatzen den preziosismo modukoak ere.

Ezin da ukatu apustu handia egin duela Larretxeak: maila pertsonalean ausarta eta zintzoa, eta literatura mailan gauzatzen zaila. Fragmentu batzuek maila esanguratsua dute, eta oso ederrak dira: aitarekin kotxean doanekoak, kanpaiei nahiz argazkiei buruz osatuak, edo amaiera, adibidez. Nortasun handiko ni poetikoa erakutsi digu Larretxeak; *Larremotzetik*-en, ordea, poetak irentsi egiten du narrazioa.

Azken ohar bat, baina ez garrrantz txilikoa: edizio lana ez da ona, eta inorentzat onartezina ere izan daiteke. Maketazioa bai, azalaz zer esanik ez –dotorea beneratzen–, baina testuan agramatikotasunak daude, gehienak komuntaduran eta puntuazioan –ez gara estilo kontuez ari, akats argiez baizik–. Ez nuke esango idazlearen ardura denik, berea bakarrik ez behintzat, baina bada editoreena.



'Larremotzetik'

Egilea: Hasier Larretxea. Argitaletxea: Erein.



'Ikuspuntuak. Artikulu bilduma (1986-2013)'

Egilea: Amaia Iturbide. Argitaletxea: Erroteta.

Liburu mardula osatu du Amaia Iturbidek, 550 orrialdekoa baino gehiagokoa, gai askoren gaineko artikuluak batuz. Bakoitza hainbat azpiataletan banatzen bada ere, hiru atal nagusitan banatua dago liburua: *Euskal literatura*, *Hainbat planteamendu kultural* eta *Arteari buruz*.



'Idatz & Mintz' 56. zenbakia

Argitaratzailea: Labayru ikastegia.

Gereziak aitzakia dituela, bere bizitzako eta batez ere literaturako hainbat erreferentzia lantzen ditu Patxi Zubizarretak *Idatz & Mintz*-en 56. zenbakian. Xabier Kaltzakorta, Yolanda Arrieta, Juan Ramon Madariaga, Xabier Boveda, Eneko Urizar eta Iratxe Retolazaren idazlanak ere aurkituko du irakurleak.



'Ordiziako azoka, kasu etnografiko bat'

Egileak: Urtzi Aizola, Beñat Garmendia eta Luxia Iriondo. Argitaratzailea: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide eskualtegia, Lazkaoko Udala.

Gerriko Ikerlan bekaren laguntzaz idatzitako lan honetan, Ordiziako azokaren alderdi kultural eta sozialak aztertutuzte egileek, ikuspegi etnografikotik aztertuta.

Hiztegiak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu denda baten partetik pasatzean mesedez sar zaitez. Sartu eta begiratu bat emaeizu Ttarrtalo argitaletxekoek kaleratu berri dituzten hiztegi eta enparauei.

Hau da hiztegi sorta kaleratu berri dutena! Dozena-erdi bai, gutxienez. Zaila da kopuru zehatza esatea, eurretako bat esku artean duzularik agian hiztegia izan litekeenik ere ez zenukeelako pentsatuko.

Guztietan ederrenea irudituzai dan *Aurretik*, *ondoren*, esaterako, mutua da. Bada, bai. Mutua, eta gainera prozesuak erakusten dituena: zer den eta zer bilakatzeko den. Esaterako liburuaren hasieran dauden ilargia eta eguzkia, kimua eta lorea, ezkurra eta haritza. Simplea dirudi, baina aurrrera egin ahala, egileek jolasa bihurritu egiten dute: behia eta esne-botila, basoa sutan eta ba-

soa ernamuinetan berritzen,... Gero eta bihurriago: haurraren zabua eta aulki kulunkaria... Jolasak, hiztegi eran, denboraren iragana hausnartzeko.

Julie Safirstein-en *Ingurumarian* ere txundigarria da. Nozio espazialen hiztegia da, haur korrekin edota euskara ikasleekin erabiltzen diren horietakoa. Orri tolesgarriekin eta antzeko mugikariekin.

Txikienentzako *Koloreak*, *Zenbakiak* eta *Nire hiztegia*, Xavier Deneux-enak, proposatzen dituzte, klasikoagoak nozioetan, trokelatu interesgarriekin iruditzen.



'Aurretik, ondoren'

Ilustrazioak: Anne-Margot Ramstein eta Matthias Arregi. Argitaletxea: Ttarrtalo.

Ipuin feministak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Adela Turin aipatuta nahitaezkoa da *feminista* hitza gogora etortzea. Haur literatura aldarrikapen sozialak egiten hasi zenean, Adela Turinek emakumearen aldeko borroka haur literaturara ekartzeko ohorea eta lana hartu zuen.

Bere asmoak gauzatzeko *Dalla parte delle bambine* deitzen den bilduma sortu zuen, eta bertan mordoxka bat titulu argitaratu zuen. Joan den urtean bi ale euskaratu zituen Pamiela argitaletxeak (ikus hemerrotekan iazko kritika, 2013-10-06 data-rekin argitaratu zena), eta aurtentzen beste bi kaleratu berri ditu: *Zorioneko hondamendia* eta *Bonobo betaurrekodunen egiazko historia*.

Iaz bezala, aurtentzen ere esan beharra dago Turinen bilduma honetan alderdi narraitiboa

nahiko baldintzatuta agertzen dela, eta, mezu berdinzaleak zabaltzeko zeregin horretan, balio hezitzaileak gainera hartzen diola literaturari. Eta hala ere, literatur lan txukunak dira, irudimenez originalak, eta teknika narraitiboa menderatzen dutenak, nahiz eta, mezu zabaldur behar horretan, kontakizunari moteltasuna erantsi zaion.

Nella Bosniaren ilustrazioa eraginkorra da, ikusgarria eta ausarta, bere garaian egiten ziren moldeen arabera, baten bati modaz kanpoko irudituko zaion arren.



'Zorioneko hondamendia'

Idazlea: Adela Turin. Ilustrazioak: Nella Bosnia. Itzultzailea: Fernando Rey. Argitaletxeak: Pamiela eta Kalandranka.